“Ser reconocidos por nuestros clientes y colaboradores y a nivel internacional como referente de la Comunidad Autónoma del País Vasco por:

nuestros logros ambientales,

nuestra capacidad de dinamización y coordinación de los diferentes agentes medioambientales,

nuestro carácter innovador,

nuestra orientación hacia la excelencia en la gestión

konprometitutako pertsonetan oinarritzen den gure arrakastarengatik

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) erreferentzia-puntu nagusia da IHOBErentzat, enpresaren helburuak, prozesuak eta jarduerak koherenteki artikulatzen eta antolatzen laguntzen baitio.

Horregatik, 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiarekin definitzen eta lerrokatzen du IHOBEK bere politika eta estrategia, eta produktu- eta zerbitzu-katalogo zabalaren bitartez iristen da bezeroengana (Euskal Autonomia Erkidegoko eragile guztiak). Kudeaketa errazteko, lau bezero-talde handi bereizi dira: Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila (IHOBEren jarduera gidatzen duen ingurumen-organoa da, eta metodologikoki bezero gisa hartzen da); industria; udalerriak; eta, azkenik, bestelako administrazio eta erakunde publikoak.

Diseinatutako produktu eta zerbitzuek merkatuaren (publikoa/ pribatua) eskaerei erantzuten diete, eskaintza pribatuak estaltzen dituen alderdien leian sartu gabe eta oinarri sendo batekin: IHOBEko langileon ezagutza eta gure hornitzaile eta aliatuen eskarmentua. Berrikuntzaren aldeko beharrezko apustua egin dugu, lehiakortasunaren ardatz gisa hartuta. 1995az geroztik, IHOBEK zerbitzuak diseinatu eta eskaintzen ditu eta, hala, bezeroen beharrei eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politikako helburuei erantzuten die.

EAEri garapen iraunkorreranzko bidean laguntzeko, behin eta berriz eguneratu behar da Sozietate Publikoa, urtero, egunero, prest jarri, xedearrekin, ikuspegiarekin eta baloreekin eta Politikaren eta Estrategiaren urteko berrikuspenarekin egin izan den bezala.

### Enpresa bikaina

IHOBEK 2003az geroztik erabateko kalitatearen alde egin du apustua, European Foundation for Quality Management (EFQM) erakundearen araberrako kudeaketa-eredu bikaina ezartzearen alde. Horrenbestez, kudeaketa hainbat prozesutan gauzatzen da IHOBE, eta prozesu horien helburuak bat datoz politika eta strategiarekin eta, era berean, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiarekin. Helburuak, halaber, beti daude bezeroari eta emaitzak lortzeko bideratuta.

### Baloreetan oinarritua

Baloreak finkatuta dituen enpresa izatea da IHOBEren identifikazio-zantzu bat. Hauek dira adostu ditugun eta betetzeko konpromisoa hartu dugun baloreak: bezeroari bideratuta egotea; aurreikuspena, berrikuntza eta sormena; parte-hartzea eta talde-lana; erabakitzeko ahalmena eta ekimena; beti hobetzen joateko konpromisoa eta hobetu nahia; eta, azkenik, erantzukizun soziala izatea.

Hain zuzen ere, IHOBEk sinesten duen erantzukizun sozialak ideia honen alde egitera bultzatzen du: enpresak epe luzean jarraituko duela bermatzeko, interesa duten alderdi guztiengan balioa sortzen laguntzea, hau da, akziodunengan, bezeroengan, hornitzaile eta laguntzaileengan, langileengan, erakunde eta instituzio laguntzaileengan, eta, oro har, gizarte osoarengan.

### Berrikuntzaren aldeko eta etengabe ikastearen aldeko apustu garbia

nuestro éxito basado en personas comprometidas

La Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible, 2002-2020, es considerada por IHOBE el punto central de referencia que le permite articular y agrupar de manera coherente el conjunto de objetivos, procesos y actividades de la empresa.

Por ello, IHOBE define y alinea su Política y Estrategia con la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 y llega a sus clientes (todos los agentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco) a través de un amplio catálogo de productos y servicios. Se han definido para facilitar la gestión cuatro grandes grupos de clientes: el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, con su función de órgano ambiental rector de la actividad de IHOBE y al que se considera metodológicamente como un cliente; la industria; los municipios, y por último, otras administraciones y entidades públicas.

Los productos y servicios diseñados atienden a la demanda del mercado (público/privado) sin entrar en competencia con los aspectos ya cubiertos por la oferta privada y con una base firme en el conocimiento de las personas de IHOBE y la experiencia de sus proveedores y aliados, así como una apuesta necesaria por la innovación como eje de competitividad. IHOBE Diseña y presta servicios desde 1995 respondiendo a las necesidades de sus clientes y a los objetivos de política ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Para contribuir al avance del conjunto del País Vasco hacia un desarrollo sostenible se necesita reactualizar la Sociedad Pública, ponerla cada año, cada día, a punto, como ya se ha ido haciendo con la misión, visión y valores y la revisión anual de la Política y Estrategia.

### Una empresa excelente

IHOBE desde el año 2003 ha apostado por la calidad total, por implantar un modelo de gestión excelente de acuerdo con la European Foundation for Quality Management (EFQM). Por ello en IHOBE, la gestión se realiza por procesos, cuyos objetivos se encuentran alineados con la Política y Estrategia y ésta a su vez con la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible, y en todo momento manteniendo el enfoque hacia el cliente y la obtención de resultados.

### Basada en valores

Una de las señas de identidad de IHOBE es ser una empresa sólidamente asentada en valores. Entre los valores que hemos acordado y con los que se ha comprometido están: la orientación al cliente; la anticipación, innovación y creatividad; la implicación y el trabajo en equipo; la capacidad de decisión e iniciativa; el compromiso con la mejora continua y el espíritu de superación y la responsabilidad social.

Precisamente, la responsabilidad social en la que cree IHOBE implica apostar por la idea de que la mejor forma de asegurar la permanencia de la empresa en el largo plazo es contribuyendo a generar valor para todas las partes interesadas en la marcha de la misma, es decir para los accionistas, clientes, proveedores y aliados, personal, entidades e instituciones colaboradoras, y en definitiva, a la sociedad en su conjunto.

### Que apuesta decididamente por la innovación y el aprendizaje continuo

IHOBEk berrikuntzarako eta zaintzarako barruko sistema berri bat jarri du abian, gure enpresaren estrategiak, proiektuak eta zerbitzuak beti gaurkotuta egon daitezzen. Arlo horren barruan, berebiziko garrantzia dute erakunde ofizialekin, ingurumen-agentziekin eta ikerketa-institutuekin, besteak beste, IHOBEk dituen harremanek. Harreman horiek ahalbidetzen dute proposamen teknologiko eta metodologiko berritzaileak garatzen joatea eta adituengandik ikastea.

2003 eta 2005 artean 'oso berritzaile' izendatutako 70 proiektu garatu dira guztira. IHOBEk bere aliatuez gain bere aholkularitza-enpresek osatzen duten sarea ere sartu duelako izan da dena posible. Berrikuntzarako apustuaren ondorioz, 2005ean diseinu-proiektuetara eta garapen- eta berrikuntza-proiektuetara bideratu zuen gastuen aurrekontuaren %16. Euskal enpresek I+G+Bn batez beste gastatzen dutena baino askoz handiagoa da ehuneko hori.

Azken urte hauetako informazio- eta jakintza-gizaratean, muga pentsamendutik, abangoardiatik, abiatuta etengabe ikasten joatea behar-beharrezko baldintza da IHOBE bezalako erakunde batentzat. Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarekin batera, herri honen ingurumen-iraunkortasunari laguntzeko paper garrantzitsu bat bete nahi du IHOBEk.

### Eraginkorra eta eragin handikoa

IHOBEk bere jardueren eraginkortasuna hobetu nahi du. Eragile sozioekonomikoak ingurumenaren arloan bide egokitik zuzentzeko egindako inbertsioek era berean ingurumen-inbertsio garrantzitsuak egin ditzaten da helburua, bereziki, industriak eta tokiko erakundeak. Horrela, gure enpresak kudeatu eta inbertitzen duen zergadunaren diru publikoa sozietatera itzultzen da, biderkatuta. Erabilitako euro bakoitza biderkatze-efektuaren % 80 dela kalkulatu da, eta helburua %100era iristea da.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari laguntzeko duen papera indartu nahi du IHOBEk, 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren barruko hainbat ingurumen-politika formulatzen, onartzen, indarrean jartzen eta gainbegiratzen. Era berean, erantzukizun bereziaren barruan sartzen da politika horietatik tresna zehatz eragileak sortzea, EAEko eragile sozialek eta ekonomikoek ingurumen-jarduera egokia izaten lagunduko dutenak.

### Bezeroei bideratua

IHOBE, batez ere, tresna eragile bat da, Sailak abiarazitako politika, planak eta programak aplikatzen laguntzen duena. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila, gure ildoak markatzen dituen organoa izateaz gain, bezero nagusia dela argi dauka Sozietate Publikoak.

Memoria honetan aipatu den bezala, azken hamarkada honetan, euskal industriari zuzendutako tresna metodologiko eta kudeaketa-tresna multzo oso bat garatu eta martxan jarri du IHOBEk. Euskadiko industriara bideratuta dago Sozietate Publikoaren jarduna eta ahalegin guztia.

IHOBE ha puesto en marcha un sistema interno de innovación y vigilancia con el objetivo de mantener permanentemente actualizadas las estrategias, proyectos y servicios de nuestra empresa. Dentro de ese marco, desempeñan un papel fundamental las relaciones con las entidades oficiales, agencias ambientales, institutos de investigación etc. con los que IHOBE mantiene relaciones y alianzas que le permiten desarrollar continuamente propuestas tecnológicas y metodológicas innovadoras y aprender de los mejores.

En el trienio (2003-2005) se han desarrollado un total de 70 proyectos calificados de altamente innovadores. Ello ha sido posible porque además de sus aliados, IHOBE ha implicado a su red de empresas consultoras en el ámbito de la innovación. Esa apuesta por la innovación ha hecho que, en 2005, el 16% del presupuesto de gasto se haya destinado a proyectos de diseño, desarrollo e innovación, un porcentaje muy por encima de la media de gasto en I+D+i de las empresas vascas.

En la sociedad global de la información y el conocimiento que ha emergido en los últimos años, el aprendizaje continuo desde el umbral del pensamiento frontera, desde la vanguardia, es un requisito imprescindible para una entidad como IHOBE que aspira a desarrollar, junto al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, un papel relevante de apoyo a la sostenibilidad ambiental de este país.

### Eficiente e influyente

IHOBE pretende maximizar la eficiencia de sus actuaciones. El objetivo es que las inversiones realizadas en traccionar ambientalmente a los agentes socioeconómicos generen, a su vez, importantes inversiones ambientales, especialmente por parte de la industria y de las corporaciones locales. De esa manera, el dinero público procedente del contribuyente que es gestionado e invertido por nuestra empresa, genera un retorno multiplicado hacia la sociedad. El efecto multiplicador de cada euro ejecutado se ha calculado en un 80% teniendo como objetivo llegar al 100%

Asimismo, IHOBE aspira a reforzar su papel como apoyo al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco en la formulación, aprobación, implementación y supervisión de las diversas políticas ambientales, integradas en torno a la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible, 2002-2020. Al mismo tiempo, entra dentro del ámbito de su responsabilidad específica el que de esas políticas surjan herramientas concretas, operativas, que contribuyan a facilitar la actuación ambientalmente adecuada de los agentes sociales y económicos del País Vasco.

### Orientada hacia sus clientes

IHOBE es por encima de todo un instrumento operativo, un facilitador de la aplicación de las políticas, planes y programas puestos en marcha por el Departamento. En la cultura de la Sociedad Pública está plenamente asumido que el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio es, además del órgano rector, el principal cliente.

Tal y como se ha señalado en esta memoria, IHOBE ha desarrollado y desplegado en la última década un juego completo de herramientas metodológicas e instrumentos de gestión servicios dirigidos a la industria vasca. La industria de este país es y seguirá ocupando la actuación y lo mejor de los esfuerzos de la Sociedad Pública.

Nahiko epe motzean bukatuko dira udalerrietako Tokiko Agenda 21k, eta asmo handiko beste aro konplexuago bat hasiko da – Udalsarea 21eko udalerrriak jadanik aro horretan daude–. Hala, udalerriki ingurumen-adierazle nagusiak praktikara eramango dira, geroz eta iraunkorragoa den bide batean.

### **Aktibo nagusia: giza kapitala**

Enpresan lan egiten duten pertsonen garapena eta gogobetetze pertsonala eta profesionala sustatzen saiatzen da IHOBE. Helburu horiek eta sozietatearen helburu estrategikoak lotu nahi dira, proiektu beraren parte izateko eta norik bere barruan besteekin batera sentitzeko. Era horretan, IHOBEko pertsona guztien ideiak eta sormena biltzeko konfiantza-giroa sortu nahi da, enpresaren ardatz diren helburuak lortzen lagunduko duen giroa.

### **EAEko Ingurumen Garapen Iraunkorrari lotutako xederantz**

IHOBE enpresa publikoak uste osoa dauka herrialde honek, ingurumenari dagokionez, iraunkortasunerantz jo behar duela eta, dudarik gabe, egin dezakeela. IHOBEren ustez, bide horretatik aurrera egiteak belaunaldi honetako euskal herritarren bizikaltatea hobetuko du eta ondoren datozenen beharrak eta eskakizunak gauzatzeko egokia den ingurumena ziurtatuko du.

Gutziz ados dago Europako Batasunak eta Nazio Batuek duten ideiarekin: gaur egungo sistema ekonomikoak ingurumen-iraunkortasunaren bidea hartu behar duela uste du.

Garapen iraunkorra intentzio oneko kontzeptu bat baino gehiago da. “Etorbizun oparora duen arma” bat da. Sistema ekonomiko eta soziala sistema naturalarekin lotzeko moduan aldaketa dakarren paradigma berri bat da. Natur eta ingurumen-baliabideak suntsitzen dituen ereduarekin bukatzea esan nahi du, eta, gutxiak, aldagai ekonomiko, sozial eta ingurumen-aldagaiak elkarrekin eta aldi berean integra ditzakeen eredu bat osatzea.

## **3. 2006ko LAN NAGUSIAK**

2006/2009ko Plan Estrategikoan lehentasuna duten ekintzen %32 jarri dira martxan aurtengo lehen ekitaldian. Nabarmentzekoa da Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin batera sortutako taldeek eman dituzten aurrerapausoak Ingurumeneko Esparru Programa (2007-2010) definitzeko, lurzoru poluituen inguruko lanetan eta IPPC Legeak arautzen dituen enpresei ingurumen-baimena emateko, bai eta hiru foru-aldundiekin batera antolatutako lan-taldeen aurrerapenak hondakinen arloan eta Tokiko Agenda 21 EAEko udalerrietan kudeatzeko lanetan. Horrez gain, gidaliburu bat egin da sektore publikoan enpresen erantzukizun sozialeko memoriak egiteko. IHOBEren iraunkortasun-memoria (Nazio Batuen GRI metodologiaren araberkoa) du euskarri gidaliburu horrek.

IHOBErekin lankidetzan aritzen diren enpresak, hornitzaileak eta aliantzak dagozkien urteko planen bidez kudeatzen dira.

En un plazo relativamente breve habrá finalizado la etapa de elaboración de las Agendas Locales 21 en los municipios, dando paso a una etapa más ambiciosa y compleja – en la que ya están inmersos los municipios incluidos en la Red Udalsarea 21 –, transformando en la práctica los indicadores ambientales clave del municipio en una dirección cada vez más sostenible.

### **Cuyo capital humano es su principal activo**

IHOBE intenta fomentar el desarrollo y la satisfacción personal y profesional de todas las personas que desarrollan su labor en la empresa. Se trata de alinear esas metas con los objetivos estratégicos de la organización para crear un clima de pertenencia y de adhesión a un proyecto común que sea vivido e interiorizado de manera compartida. De esa manera, se trata de generar una atmósfera de confianza que facilite la aportación del caudal de ideas y creatividad de todas y cada una de las personas de IHOBE, atmósfera que favorecerá la consecución de los objetivos clave de la empresa.

### **En el desempeño de una misión ligada al Desarrollo Ambientalmente Sostenible del País Vasco**

La empresa pública IHOBE está firmemente convencida de que este país necesita encaminarse en una dirección ambientalmente sostenible y de que puede hacerlo. IHOBE cree que avanzar en esa dirección va a suponer mejorar la calidad de vida de las ciudadanas y ciudadanos vascos de esta generación, así como asegurar un medio natural y un medio ambiente adecuados para satisfacer las necesidades y requerimientos de quienes vengan tras nosotros.

IHOBE se siente plenamente alineada con los requerimientos de la Unión Europea y de las Naciones Unidas de que es absolutamente imprescindible que el actual sistema económico vaya redireccionándose hacia la sostenibilidad ambiental.

El desarrollo sostenible es mucho más que un concepto de buenas intenciones. Es un “arma cargada de futuro”. Es un nuevo paradigma que implica un cambio en la manera en que el sistema económico y social se relacionan con el sistema natural. Significa finalizar con el modelo depredador de recursos naturales y del medio ambiente e ir articulando un modelo alternativo capaz de integrar en la misma ecuación y al mismo tiempo las variables económicas, ambientales y sociales.

## **3. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2006**

Las acciones prioritarias identificadas en el PE 2006/2009 se han implantado en un 32% sobre el total en este primer ejercicio del período. Resulta especialmente destacable el avance obtenido en los equipos conjuntos creados con el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio para la definición del Programa Marco Ambiental (2007-2010), los Suelos Contaminados y autorización ambiental a las empresas reguladas por la Ley IPPC, así como las mesas de trabajo con las tres Diputaciones Forales en materia de residuos y la gestión de la Agenda Local 21 en los municipios vascos. Así mismo, se ha desarrollado una guía para la redacción de memorias de RSE en el sector público, validada por la redacción de la memoria de sostenibilidad de IHOBE según la metodología GRI de Naciones Unidas.

La gestión de empresas colaboradoras de IHOBE, proveedores y alianzas, se desarrolla a través de los respectivos planes anuales.

Hornitzaileei dagokienez, urteko foroaz gain (seigarrena), lan-bilerak egin dira kontratazio-bolumen handiena duten eta berritzaileenak diren aholkularitza-enprekin. Bestalde, lurzoru poluituei, Tokiko Agenda 21i eta enpresentzako zerbitzuei (Ekoscan) buruzko gaikako bilerak ere egin dira. Hornitzaileek IHOBERen kudeaketa baloratu dute, eta kalifikazio hau eman diote: 7,7/10.

Aliantzak izan dira betidanik IHOBE berritzeko modu onena. 2006an, *benchmarking*-eko ekintzak egin dira, ILAS-Udalsarea-ren hitzarmenen bidez, Flandesko gobernuarekin (beste hitzarmen batzuk), Xarxa de municipios de Catalunya sarearekin, Prepare sarearekin, Lurzoru Poluituei buruzko *Common Forum*-ekin, etab. Guztira, 35 erakunderekin izan dira harremanak, eta sei ebaluazio eta lau berrikuntza egin dira. Aliantzen gogobetetze-maila 7/10 da.

IHOBERen funtzionamendua definitzen duten barne-prozesuen kudeaketak berriz eta erraz gainditu ditu ISO-9001, ISO-14001 eta EN-17025 arauen ikuskapenak. Gertaera garrantzitsuen artean aipatzekoak dira IHOBEko prozesuen mapa berrikusi eta 12 prozesu nagusi atera direla (lehen baino gutxiago), CMI sinplifikatua prestatu dela eta Sailburuordetzaren/Administrazio Kontseiluaren Zuzendaritzaren Prozesu Nagusien Batzordean integratu dela.

Berrikuntza-proiektuetako gastua aurrekontuaren %11ra (1.250.000 euro) igo da 2006an. Aurten, 50 proiektu berritzaile kudeatu ditu IHOBEk, 35 aholkularitza-enpresak eta bezerok proposatuta. Zerbitzuen katalogoa berraztertu eta gero, asko gutxitu dira eskaintzen diren zerbitzuak, bezeroarentzako eskaintza mugatu da eta 2006/2009ko PE berrira egokitu da.

Atal honetan, aipagarria da enpresako teknologiak kudeatzeko plan berria idatzi dela teknologiak berraztertzeke.

Sustapenari eta komunikazioari dagokienez, 2006ko Industria Ekobarometroa egin da. Bi urtez behin egiten da, ingurumenarekiko euskal industriak duen jarrera ezagutzeko.

Bestalde, Nazioarteko Ingurumen Egunaren (ekainak 5) inguruko ekintzak antolatu ditu IHOBEk 2006an EAEko ingurumeneko eragileentzat, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren aginduz. Bost eztabaida-jardunaldi (enpresa, udalerrria, ekodiseinua, hezkuntza... izan ziren gaiak) egin dira, 810 lagunek parte hartu dute, eta kontent agertu dira (7,7/10), gizarteko eragileen ekarpenak, eskaerak eta kezak jasotzeko. Halaber, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarentzat 2007/2010eko Ingurumeneko Esparru Programa eta Kontsumo Iraunkorreko Plana aurkezteko eta laguntzeko ekitaldiak antolatu ditu IHOBEk.

Bestalde, Bezeroak Lortzeko prozesutik, batez ere industriari eta euskal udalei zuzenduta, trebakuntza-, dibulgazio- eta aurkezpen-ekitaldiak kudeatu dira, besteak beste: lan-tailerrak, EAEko 2006ko Ingurumen Adierazleen aurkezpena, Ingurumena Hobetzeko bidean dauden Euskal Enpresen VI. Topaketa, 3 Udaltalde 21en sinatzea, Udalsarea 21en urteroko jardunaldia Lehendakaritzan eta sektorekako borondatezko hitzarmen bat sinatzea. Enpresentzako Ingurumeneko Europako Sarien banaketa (Euskal Atala) ere antolatu da, eta Teknologia Garbien Euskal Zerrenda bultzatu da.

Horrez gain, Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearen komunikazio-kanpaina eta promozio materiala (Orekan eta IPPC buletinak) kudeatu dira, eta 20 argitalpen plazaratu dira.

En cuanto a los proveedores se han realizado, además del tradicional Foro anual que ha cumplido su sexta edición, reuniones de trabajo con las consultoras más innovadoras y de mayor volumen de contratación, así como en los ámbitos temáticos de Suelos Contaminados, Agenda Local 21 y servicios a empresas (Ekoscan, ...). Los proveedores de IHOBE han valorado la gestión de IHOBE otorgándole una puntuación de 7,7/10.

Las alianzas han supuesto tradicionalmente una de las mejoras para la innovación en IHOBE. En 2006 se habrán ejecutado a través de convenios del DMAOT-Udalsarea, acciones de benchmarking con el Gobierno de Flandes (otros convenios), la Xarxa de municipios de Catalunya, la Red Prepare, el Common Forum sobre Suelos Contaminados, etc. En total se han llevado a cabo relaciones con 35 entidades obteniendo: 6 evaluaciones, 4 innovaciones y una satisfacción de las alianzas de 7/10.

La gestión de los procesos internos que definen el funcionamiento de IHOBE ha revalidado con éxito las auditorías de las normas ISO 9001, ISO 14001 y EN 17025. Como hitos relevantes destacar la revisión del mapa de procesos de IHOBE, reduciendo a 12 los procesos clave de la organización, la elaboración del CMI simplificado y la integración del Comité de Procesos Clave de la Dirección de la Viceconsejería/Consejo de Administración.

En el ejercicio 2006 el gasto en proyectos de innovación ha ascendido al 11% (1.250.000 euros) del presupuesto. IHOBE ha gestionado en este ejercicio 50 proyectos innovadores propuestos por 35 consultoras y clientes. La revisión del catálogo de servicios ha supuesto una reducción radical el número de servicios ofertados, concretando la oferta al cliente y adaptándose al nuevo PE 2006/2009.

En este capítulo cabe mencionar la revisión de las tecnologías mediante la redacción del nuevo plan de gestión de tecnologías de la empresa.

En el ámbito de la promoción y comunicación se ha realizado el informe Ecobarómetro Industrial 2006 que con carácter bienal sirve para conocer la percepción de la industria vasca en relación al medio ambiente.

Así mismo, IHOBE ha organizado en 2006 eventos para el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio dirigido a los agentes medioambientales de la CAE, en torno al Día Mundial de Medio Ambiente (5 junio) se recogen las aportaciones, demandas e inquietudes de diferentes sectores de la sociedad reuniendo a 810 participantes en 5 jornadas de debates (empresas, municipios, ecodiseño, educación), manteniendo un alto índice de satisfacción (7,7 aprox. sobre 10). Para el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio se han organizado eventos de presentación y apoyo al Programa Marco Ambiental 2007/2010 y Plan de Consumo Sostenible.

Por otra parte, desde este proceso Adquirir Clientes se han gestionado eventos de formación, divulgación y presentación dirigidos fundamentalmente a la industria y a los ayuntamientos vascos, Talleres de trabajo, la presentación de Indicadores Ambientales de la CAE 2006, o VI Encuentro de empresas Vascas hacia la Mejora Ambiental, la firma de 3 Udaltaldes 21, la jornada anual Udalsarea 21 en Lehendakaritza y la firma de un Acuerdo Voluntario Sectorial. También se ha gestionado la entrega de los premios europeos 2006 a la empresa (Sección Vasca) y la promoción del Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

Adicionalmente, se han gestionado campañas de comunicación sobre la Semana Europea de la Movilidad Sostenible y se ha producido diverso material promocional (Boletín Orekan, Boletín IPPC) y se han editado 20 publicaciones.



IHOBEko bezeroak, oro har, pozik daude: 10etik 7,9 puntu eman dizkiote. Gainera, jendearen hitza entzuteko sistemak bezeroen eta hornitzaileen erreklamazioak, zorionak eta iradokizunak jaso eta kudeatu ditu, eta jasotako kexa guztiei azkar erantzun ahal izan zaie.

IHOBEren jarduera gehienak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari zerbitzuak ematera bideratuta daude.

Aipagarria da 2007-2010eko Ingurumen Esparru Programa berria egiten hasi izana. 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren helburuak eta betebeharrak lau urteko epean gauzatzeko dituen ingurumen-plangintzarako tresna da programa hori. Horri lotuta, 2006ko Iraunkortasun Txostena eta 2006ko EAEko Ingurumen Adierazleak idatzi dira.

Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa eratzen eta martxan jartzen lagundu dio IHOBEk Ingurumen Sailari, bai koordinazio teknikoaz arduratzen, bai Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana prestatzen. Zeharkako tresna hori ingurumen-helburuak sektoretan integratzeko paradigman adibide garbia da, Eusko Jaurlaritzako sei sailek hartu baitute parte (Industria, Hezkuntza, Etxebizitza, Nekazaritza, Garraioa eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak).

Lurzoru Poluituen Plana amaitu da, baita lurzoruaren poluzioa prebenitzeko 1/05 Legea idazteko eta garatzeko tresna legalak bideratzen ere. Horren erakusle da lurzoruak aztertzeke eta berreskuratzeko lanak egiteko baimendutako erakundeak eta Lurzoru Poluituen Erregistro Administrazioa arautu direla.

Bestalde, Garapen Iraunkorrerako Eskualdeetako Gobernuen Sarean (nrg4SD) eta Europako Eskualdeetako Ingurumen Konferentzian (ENCORE) parte hartzen lagundu dio IHOBEk Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari. Esparru horietan, lankidetzak-hitzarmenak egin dira Txileko Ekonomia Ministerioarekin, Argentinako Osasun eta Ingurumen Ministerioarekin eta hainbat herrialdeetako gobernuen (Goias, Sao Paulo, Chaco, Buenos Aires, Antofagasta, Valparaiso, West Java eta Flandes).

GEOIKER Lurzoruaren Kalitatearen Informazio Sistema eguneratua dago beti, eta, horretarako, 2006an EAEko industria-kokaleku guztien ikerketa-inbentario bat egiten hasi gara. GEOIKER-ek 8.000 kokagune baino gehiago ditu erregistratuta.

2005eko ekainean Lurzoruaren Poluzioa Prebenitzeko Legea indarrean sartu zenetik, izugarri areagotu dira 2006an IHOBEk Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzarentzat egindako txosten teknikoak eta udalei emandako laguntza. Guztira 220 txosten baino gehiago egin dira.

Lurzoru poluituak kudeatzeko azpiegiturei dagokienez, lurzoru poluituak kudeatzeko zentro baten bideragarritasun-azterketa berraztertzen hasi da IHOBE. Halaber, aurtun jarraitu egin du Loiu aireportuko eta Barakaldoko Argalarioko segurtasun-biltegien jarraipena eta kontrola egiten.

Airearen kalitateari buruzko eskualdeko 13 plan idazten lagundu dio sozietate publikoak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari.

La satisfacción media de todos los clientes de IHOBE es de 7,9 sobre 10. Además, el sistema de escucha activa ha recogido y gestionado las reclamaciones, felicitaciones y sugerencias realizadas por clientes y proveedores dando rápida respuesta a todas las quejas recibidas.

La prestación de servicios al DMAOT abarca la mayoría de las actuaciones de IHOBE.

Un hito reseñable es la elaboración del nuevo Programa Marco Ambiental (2007-2010), instrumento de planificación ambiental que desarrolla en un plazo cuatrienal los objetivos y compromisos de la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible (2002-2020). En este mismo campo se han redactado el Informe de Sostenibilidad 2006 y los Indicadores Ambientales de la CAE 2006.

La constitución y lanzamiento por parte de la Consejería de Medio Ambiente de la Oficina Vasca de Cambio Climático ha contado con el apoyo de IHOBE, tanto en la coordinación técnica como en el inicio de la elaboración del Plan Vasco de Lucha contra el Cambio Climático. Este instrumento, de carácter netamente transversal, supone el paradigma de la integración sectorial de los objetivos medioambientales ya que participan hasta seis Departamentos del Gobierno Vasco (Industria, Educación, Vivienda, Agricultura, Transporte y Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio).

Se ha finalizado la redacción del Plan de Suelos Contaminados, así como la tramitación de los instrumentos legales de desarrollo de la ley 1/05 de prevención de la contaminación del suelo como es el caso de la regulación de las entidades acreditadas para labores de investigación y recuperación de los suelos y del Registro Administrativo de Suelos Contaminados.

IHOBE ha apoyado al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio en su participación en la red de gobiernos regionales para el desarrollo sostenible (nrg4SD) y en ENCORE (Comité de las Regiones para el Medio Ambiente de la Unión Europea), en dichos marcos se han gestionado los acuerdos de colaboración con el Ministerio de Economía de Chile, el Ministerio de Salud y Ambiente de Argentina y los gobiernos de los Estados de Goias, Sao Paulo, Chaco, Buenos Aires, Antofagasta, Valparaiso y West Java, así como en Flandes.

El Sistema de Información de la Calidad del Suelo GEOIKER está actualizado permanentemente y para ello en 2006 se ha iniciado un estudio inventario sobre todos los emplazamientos industriales de la CAE. GEOIKER mantiene registrados más de 8.000 emplazamientos.

Tras la entrada en vigor de la Ley de prevención de la contaminación del suelo en junio de 2005, en el ejercicio 2006 se han incrementado exponencialmente los informes técnicos elaborados por IHOBE para la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno, así como la atención y apoyo a los Ayuntamientos. El número final de informes ha superado los 220.

En el apartado de infraestructuras de gestión de suelos contaminados este año se ha iniciado la revisión del estudio de viabilidad de un centro de gestión de Suelos Contaminados. Además, se ha continuado con el seguimiento y control de las Celdas de Seguridad del Aeropuerto en Loiu y Argalario en Barakaldo.

Se ha apoyado al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio en la redacción de 13 planes comarcales de calidad del aire.

IHOBEren eginbehar nagusietako bat da lurzoru poluituak kudeatzeko tresnak eta tresna teknikoak egitea. Hori dela eta, kokaleku poluituetako materialak hondeatzeko eskuliburua eta industrian lurzoruaren poluzioa prebenitzeari buruzkoa amaitu ditu.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak Teknologia Garbien EAEko Zerrenda berraztertu du IHOBEren laguntzarekin. Zerrenda hori oinarritzko lanabesa da Ogasun Sailak eta foru-aldundiek ingurumen-zergen politika berritzailea aplikatu dezaten.

2005ean atmosferara egindako emisioen inbentarioak prestatu dira, zehazki, berotegi-efektua eragiten duten emisioen, azidotzaileen, partikulen eta troposferako ozonoaren aitzindarien inbentarioak. Euskal Administrazio Publikoan erosteta berdeak egitea sustatzeko proiektua jarri da martxan. Hondakinei dagokionez, HHSak birziklatzeko oztopoei buruzko azterketa bati ekin zaio foru-aldundiekin batera. Azkenik, 2005eko hondakin arriskutsuei, ez-arriskutsuei eta hiriko hondakinei buruzko inbentarioak egin dira.

Hondakin-plangintzari dagokionez, hiri-hondakin solidoen plangintza egiteko jarraibideak berrikusi dira, foru-aldundiekin batera, eta hondakin arriskutsuei eta ez-arriskutsuei buruzko plan berriak idaztea bultzatu da.

Horrez gain, EHUko Ingurumen Ekonomia Sailarekin lankidetzan jarraitu du IHOBEk, besteak beste, klima-aldaketaren eta garraioaren arloetan.

OLEAZ laborategian IHOBE, S.A.-k EAEko Zentro Ofizial moduan olio erabilien kontrol analitikoak egiten du, eta aurtan 11.000 tona baino olio erabili gehiago kontrolatu dira.

IPPC legeak erasandako industria-sektoreei Zerbitzua Emateko prozesuan, ingurumena hobetzeko borondatezko hitzarmenak egin dira industria- aeronautika- eta kimika-sektoreekin (ez IPPC). Sektoreren horien urteroko jarraipena egiten da. Ildo honetako proiektu osagarri moduan, Europako 9 BREF euskal sektoreetara moldatzea azpimarratzekoa da; baita ingurumen-baimen integratua eskatzeko enpresari laguntzeko gida praktikoa idatzi izana ere.

Industriako gainerako sektoreetan erdietsitako lorpen garrantzitsuenak enpresarentzako ingurumen-ekintzako zerbitzuetan izan dira. Ekodiseinua Sustatzeko 2004-2006ko Eusko Jaurlaritzaren Programaren ildoak jarraiki, produktuaren ingurumen-berrikuntzan 21 enpresa murgiltzea lortu da. Enpresa horietako seik UNE 150.301 ekodiseinuko arauaren arabera ziurtagiria lortu dute, eta euskal enpresa bat izan da Espainiako lehena. Halaber, 110 enpresak Ekoscan Arauaren ziurtagiria lortu dute; horietatik 75 Ingurumeneko Ekintza Plana ezarri duten industrietakoak dira. Guztira, 750 enpresa baino gehiago ari dira lanean ingurumen-hobekuntzarako Ekoscan metodologiaren arabera.

Ingurumen-legeria betetzea lortzeko enpresek eskainitako laguntza Legescan zerbitzuaren bidez gauzatu da, eta, Eusko Jaurlaritzaren 2003-2007ko Ingurumeneko Ikuskapen Planarekin koordinatuta, honako hau lortu da: 65 industriak gai horretan duten egoeraren diagnostikoa egitea eta epe laburrean lege-eskakizunetara moldatzeko ekintza-plana egitea. Administrazio eskudunarekin harremanetan epe motzeko egiazko hobekuntza ekarri du zerbitzu honek enpresen %57an.

Una de las tareas fundamentales de IHOBE es la elaboración de herramientas técnicas y de gestión en suelos contaminados. Por ello se han finalizado las guías de excavación de materiales en emplazamientos contaminados y la de prevención de la contaminación del suelo en la industria.

El Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio ha revisado con el apoyo de IHOBE el Listado Vasco de Tecnologías Limpias, herramienta básica para que los Departamentos de Hacienda de las Diputaciones Forales puedan aplicar una innovadora política de fiscalidad ambiental.

Este ejercicio también se prepararon los inventarios de emisiones atmosféricas de 2005 en concreto los de gases de efecto invernadero, acidificantes, partículas y precursores de ozono troposférico. Se ha iniciado un proyecto sobre promoción de la compra verde en la Administración Pública Vasca. En el ámbito de los residuos se ha iniciado un estudio de acuerdo con las Diputaciones Forales sobre barreras al reciclaje de los RSU. Por último se han elaborado los inventarios de residuos peligrosos, no peligrosos y urbanos de 2005.

En el ámbito de la planificación de residuos se han revisado las directrices para la planificación de RSU conjuntamente con las Diputaciones y lanzado la redacción de los nuevos planes de residuos peligrosos y no peligrosos.

Igualmente, ha continuado la colaboración con la Unidad de Economía Ambiental de la UPV-EHU en ámbitos como el Cambio Climático y del Transporte.

El laboratorio OLEAZ donde IHOBE, S.A. realiza el control analítico de los aceites usados como Centro Oficial de la CAE, ha controlado este año más de 11.000 Tn de aceite usado.

En el proceso de Dar Servicio a los sectores industriales afectados por la Ley IPPC, se han firmado los acuerdos voluntarios para la mejora ambiental con los sectores industria aeronautica y químico (no IPPC). Se continúa con el seguimiento anual de los sectores firmados anteriormente. Como proyectos complementarios de esta línea destaca la adaptación de 9 BREF europeos a los sectores vascos, y la redacción de una guía práctica de apoyo a la empresa para la solicitud de la autorización ambiental integrada.

Los logros más importantes conseguidos en el resto de sectores industriales se refieren a los servicios de acción ambiental para la empresa. Siguiendo las directrices del "Programa de Promoción del Ecodiseño del Gobierno Vasco 2004-2006" se ha conseguido involucrar a 21 empresas en la innovación ambiental de producto habiendo obtenido el certificado según la norma de ecodiseño UNE 150.301, 6 empresas, y en concreto una empresa vasca ha sido la primera del Estado. Asimismo 110 empresas han conseguido la certificación de la Norma Ekoscan, correspondiendo 75 de las mismas a industrias que han establecido un Plan de Acción Ambiental. En total hay más de 750 empresas que están trabajando según la metodología de mejora ambiental Ekoscan.

El apoyo a las empresas para conseguir el cumplimiento de la legislación ambiental se ha materializado a través del servicio Legescan que en coordinación con el Plan de Inspección Ambiental 2003-2007 del Gobierno Vasco ha conseguido que 65 industrias diagnostiquen su situación al respecto y establezcan un plan de acción para adaptarse en breve plazo a los requisitos legales. Este servicio ha logrado en un 57% de las empresas una mejora real a corto plazo en la relación con la Administración competente.

Orientazio-zerbitzuek goranzko joerari eutsi diote, Ingurumen Adierazleen Bankuan, adibidez; izan ere, 400 enpresak lehiakideen aurrez aurre kokatu ahal izan dute ingurumenari dagokionez. Ondorioz, hobekuntza asko sumatu dira, eta hornitutako 150 Praktika Onenetakotik gorako bat erabili ahal izan da. 190 enpresak jarraitu dute, orain arte bezala, enpresentzako Lan Tailerretara joaten; hain zuzen, horiek dira ingurumen-trebakuntzako ekintza nagusiak gure Autonomia Erkidegoko industrietzat.

Fabrikako orientazio praktikoak gorakada handia izan du, ingurumen-adituen 175 aholkularitzaren bidez, eta industrien %67k inbertsioak egin ditu aipatutako aholkularitzaren ondorioz.

IHOBE Line zerbitzuak EAEko enpresek ingurumenari buruz behar duten informazioa eta aholkuak ematen jarraitzen du. 2006an, 1.100 enpresaren 3.500 kontsulta baino gehiago jaso ziren.

2006an udal-erakundeei emandako zerbitzu garrantzitsuenetako bat jabetza publikoko lurzoru polituak ikertzea eta berreskuratzea izan da, "Lurzoru polituak berreskuratzeke Euskal Autonomia Erkidegoko Udalerri eta Mankomunitateentzako Programaren" esparruan. Ildo horretan, 2003-2006 denboraldirako indarrean dagoen programan jasotako zenbait lur ikertu eta berreskuratu dira. Hauek dira ikertzen eta/edo berreskuratzen ari diren kokaleku batzuk: Basauriko hondakindegia, Campsaren instalazioak (Gasteiz), HHSen erraustegia (Bermeo), gas-fabrika (Donostia), Lemoako eta Erandioko kokaleku batzuk, etab. 2005ean guztira 3 ha-ko azalera duten 10 kokagune berreskuratu ditu programa honek.

Tokiko Agenda 21 programari dagokionez, azpimarratu beharrekoa da EAEko biztanleen %95 baino gehiago bizi dela Tokiko Agenda 21 garatzen duten 208 udalerrietan; Bizkaiko eta Gipuzkoako ia udal guztiak. Horrez gain, udal horietatik 138 Udalsarea 21en barruan ere badaude (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea).

Tokiko iraunkortasunaren arloan, 17 euskal udalerrri barne hartzen dituzten 3 udaltalde jarri dira martxan; Tokiko Agenda 21en IV. jardunaldia antolatu da EAEko udalerrietan, eta 200 parte-hartzaile inguru izan dira; udaletarako bost iraunkortasun-gida tekniko argitaratzeaz gain, beste zenbait liburuxka eta dibulgazio-lan argitaratu dira; Tokiko Agenda 21eko Lan Tailerrak diseinatu dira.

Gainera, Udalsareako Batzorde Politikoaren bilera ere egin zen, eta 2006-2009 Plan Estrategikoa eta 2006-2007ko Kudeaketa Plana onartu ziren. Bilera horrez gainera, Udalsareako Batzorde Teknikoak lau bilera egin ditu, eta, horri esker, kohesio handiko talde eta udaletako iraunkortasunean aitzindari bihurtu da Udalsarea 21.

Balio estrategikoa duten datuak integratzeko, konparatzeko, antolatzeko eta elkarbanatzeko, Informazio Sistema Korporatiboak zabaldu egin dira (IHOBEko kudeaketa-aplikazioak integratzen ditu, eta sozietateak harremanak dituen erakundeei buruz duen informazioa jasotzen du Informazio Sistema Korporatiboak).

Argitalpenen banaketari dagokionez, [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) web orriko erabiltzaileek 73.000 ale deskargatu dituzte, eta paperean 55.000 ale banatu dira.

Gainera, Garapen Iraunkorrerako Eskualdeetako Gobernuen Sarearen web orria ([www.nrg4sd.net](http://www.nrg4sd.net)) kudeatu dugu, eta edukia hiru hizkuntzatan ematen jarraitu dugu.

Los servicios de orientación han mantenido una tendencia al alza como es el caso del Banco de Indicadores ambiental que ha permitido posicionar ambientalmente a 400 empresas frente a su competencia, lo que les ha posibilitado detectar numerosas mejoras y aplicar alguna de las más de 150 Mejores Prácticas suministradas. Se ha mantenido la asistencia de 190 empresas diferentes en los Talleres de Trabajo para empresas, principal actividad formativa ambiental para las industrias de nuestra Comunidad Autónoma.

La orientación en fábrica ha revelado un importante ascenso a través de 175 Asesoramientos Ambientales Expertos habiendo realizado un 67% de las industrias inversiones derivadas del citado asesoramiento.

El servicio Ihobe-line continua atendiendo las demandas de información y asesoramiento ambiental de las empresas vascas. El número de consultas recibidas en 2006 asciende a 3.500 de 1.100 empresas diferentes.

Entre los servicios prestado a Entidades Municipales en 2006 se han llevado a cabo la investigación y recuperación de suelos contaminados de propiedad pública en el marco del "Programa de recuperación de suelos contaminados para Ayuntamientos y Mancomunidades de la Comunidad Autónoma del País Vasco". En este ámbito se han investigado y recuperado varios terrenos incorporados en el programa vigente para el periodo 2003-2006. Algunos de los emplazamientos que han sido investigados y/o estan siendo recuperados son el Vertedero de Basauri, las instalaciones de Campsa (Vitoria-Gasteiz), la incineradora de RSU (Bermeo), la fábrica de gas (Donostia) y otros emplazamientos de Lemona, Erandio, etc. Este Programa ha recuperado en 2005 10 emplazamientos que suman una superficie de 3 Has.

En relación con el programa de Agenda Local 21 destacamos su consolidación con más de 95% de la población vasca que vive en 208 municipios que están desarrollando la Agenda Local 21, en el que se encuentran la casi totalidad de los municipios de Bizkaia y Gipuzkoa. Además, destaca la pertenencia de 138 de todos estos municipios a Udalsarea 21 (Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad).

En el campo de la sostenibilidad local se han puesto en marcha 3 udaltalde que abarcan a 17 municipios vascos, se ha organizado la IV Jornada de Agendas Locales 21 en municipios vascos con un total de cerca de 200 participantes; se han publicado cinco guías técnicas de sostenibilidad municipal además de otros folletos y publicaciones divulgativas; se han diseñado los Talleres de Trabajo de AL21

Adicionalmente se celebró la reunión del Comité Político de Udalsarea en la que se aprobó el Plan Estratégico 2006-2009 y el Plan de Gestión 2006-2007. Además han tenido lugar 4 reuniones del Comité Técnico de Udalsarea que han convertido a este grupo en un equipo cohesionado y líder en Sostenibilidad Municipal.

De cara a favorecer la integración, comparabilidad, trazabilidad y compartición de datos con valor estratégico se ha ampliado el Sistema de Información Corporativo (SIC) que integra las aplicaciones de gestión de IHOBE y recoge toda la información que la organización posee de las entidades con las que mantiene relación.

En lo referente a la distribución de publicaciones, los usuarios de [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) han descargado 73.000 ejemplares y se han distribuido 55.000 ejemplares en soporte papel.

Además se ha gestionado [www.nrg4sd.net](http://www.nrg4sd.net) el sitio web de la Red de Gobiernos Regionales por el Desarrollo Sostenible y se ha continuado ofreciendo contenidos en tres idiomas.



Aldi berean, [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) web korporatiboak diseinua eta zerbitzuak hobetu ditu, eta atal berriak ere baditu orain. Horietako batzuk gure bezeroak diren enpresentzat dira eta, beraz, sarbide mugatua dute. 500.000 erabiltzailek bisitatu dute web gunea.

#### 4. 2007rako HELBURU OROKORRAK

Ingurumen Sailarentzat egingo du IHOBEk lan gehien 2007an, zehatz-mehatz, 2007/2010eko Ingurumen Esparru Programa abian jartzeko eta koordinatzeko. Horixe izango da, hain zuzen, IHOBEren jardueraren elementu nagusia.

Programa horrekin lotutako azterketak eta txostenak egiten lagunduko dio Ingurumen Sailari. Datorren ekitaldian 2007ko ingurumen-adierazleen txostena eta 2007ko iraunkortasun-txostena izango dira azpimarratzekoak. Iraunkortasun-txostena urtero egiten da, eta Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiarako (2007-2020) konpromisoak gauzatzekoan izandako aurrerapena azaltzen du.

Ekintzak martxan jarriko dira Ingurumenaren aldetik iraunkorra den Kontsumo Planaren (2006-2010) inguruan. Era berean, Hezkuntza Sailarekin sinatutako akordioaren esparruan ikastetxeetan hondakinak biltzeari buruz Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari esleitutako eginkizunak beteko ditu IHOBEk.

Klima-aldaketaren kontrako 2007-2012 Plana abiaraztean Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari laguntzea –eragile instituzional eta pribatuekin lankidetzan– izango da 2007ko ardatzetako bat. Idazkaritza lanak IHOBEk egingo dituen Klima Aldaketaren Euskal Bulegoaren bitartez koordinatuko da Plan hori.

Johannesburg-en munduko 24 herrialdek sinatutako Gauteng-eko Deklarazioaren edukia arabera, Eusko Jaurlaritzak Garapen Iraunkorrekiko konpromisoa hartu du eta, oro har, hori sustatzeko prest dago, informazioa eta esperientzia trukatzuz eta, Government Regional Network for Sustainable Development sarearen esparruan, beste herrialde batzuekin batera lan eginez. 2007ko helburuen barruan dago lankidetzat-hitzarmenen jarraipena egitea. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak bi aldeko hitzarmenak direla-eta enkargatu dizkion ekintzetan lagunduko du IHOBEk, bereziki Flandesko Gobernuarekin sinatutakoaren ingurukoetan.

Lurzorua ez poluitzeko eta poluitutakoa garbitzeko 1/2005 Legea legez garatuko da, poluitutako lurak ikertzeko eta berreskuratzeko entitateen akreditazioa arautu ahal izateko.

GEOIKER Lurzoruaren Kalitatearen Informazio Sistemara informazioa eguneratzen jarraituko da, arlo horretan informazio-iturri nagusi bihurtu dadin. Aurreko urteetan bezalaxe, lursail poluituak ikertzeari eta berreskuratzeari buruzko txosten teknikoak egiten lagunduko zaio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari. Jarduera hori asko handitu da azken urteotan.

Tresna tekniko berriak garatzen segitu aurretik, ahalegin berezia egingo da EAEko Lurzoru Poluituen 2007-2012 Planak aurreikusitako ekintzak kudeatzeko.

Adicionalmente, la web corporativa [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net) ha actualizado su diseño y prestaciones y se han incorporado nuevos apartados, algunos de ellos de acceso restringido, dirigidos a empresas clientes. La web ha sido visitada por 500.000 usuarios.

#### 4. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2007

El Departamento de Medio Ambiente es el que más dedicación requerirá para el lanzamiento y coordinación del Programa Marco Ambiental 2007-2010 que será el elemento central de la actuación de IHOBE.

Se apoyará al Departamento de Medio Ambiente en la elaboración de estudios e informes relacionados con el Programa Marco Ambiental. El próximo ejercicio destacará la elaboración del informe de sostenibilidad 2007, informe anual que presenta el grado de avance en la ejecución de los Compromisos de la EAVDS (2002-2020) y el informe sobre indicadores ambientales 2007.

